Egin buruketak.

Idatzi laukietan buruketaren datuak, aukeratu eragiketa eta idatzi emaitza.

Koldok 25 puxika zituen, bere amak, lanetik etorri denean, beste 13 ekarri dizkio. Zenbat dauzka orain?

Hasieran zeukan	Amak ekarri		Orain dauka
		+ =	

Anek 38 puxtarri zituen, baina kalera joan da jolastera eta 10 galdu. Zenbat dauzka orain?

Hasieran zeukan	Kalean galdu		Orain dauka
		+ =	

Autobus batean 60 pertsona doaz. Geltoki batean 15 igotzen dira. Zenbat doaz orain?

Hasieran doaz	Geltokian igo		Orain doaz
		+ =	

Jolastoki batean 40 ume daude, baina berandu da eta 20 etxera doaz. Zenbat gelditzen dira orain?

Hasieran zeuden	Etxera joan		Orain daude
		+ =	